eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco   Euskal Herriko Unibertsitatea

**ERABAKIA, 2019ko otsailaren 25ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Campuseko errektoreordearena, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak antolatutako jardueretan parte hartzeagatik kredituak lortu daitezkeela jakinarazteko.**

**I. BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZAK** hainbat jarduera antolatu ditu 2018/2019 ikasturterako, hain zuzen ere ERANSKINEAN jasotakoak.

**II.** Era honetako jardunaldietan parte hartzea baliagarria da **HAUTAZKO KREDITUAK** lortzeko graduren bat ikasten ari diren ikasleentzat (hau da, aipatutako 1393/2007 errege dekretuak arautako ikasketa planak).

Bestetik, Graduko ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko Arautegiko 11.4.a) artikuluari jarraiki (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartua eta EHAAn 2012ko ekainaren 19an argitaratua), posible da unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako prestakuntzarako kultur ekintzengatik (ikastaro, mintegi, kongresu eta halakoak), **HAUTAZKO KREDITUAK** amortizatzea.

Jarduera hauetarako, 25 orduko kreditu bateko baliokidetza ezarri da.

**III.** Errektoreordetzek antolatutako ekintzengatik **unibertsitateko ikasle guztiei** aitortuko zaie kredituak amortizatzeko aukera, alde batera utzita zein titulaziotakoak diren.

Aipatutako guztia kontuan hartuta,

**RESOLUCIÓN de 25 de febrero de 2019, del Vicerrector de Campus de Bizkaia de la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se da publicidad al hecho de que la participación en actividades organizadas por el Vicerrectorado de Campus de Bizkaia, será válida para la obtención de créditos.**

**I.** El **VICERRECTORADO DE CAMPUS DE BIZKAIA** organiza durante el curso 2018/2019 diversas actividades que se detallan en el ANEXO adjunto.

**II.** La participación en una actividad de tales características es válida para la obtención de **CRÉDITOS** por parte del alumnado que curse algún Grado (es decir, planes de estudio regulados por el citado *Real Decreto 1393/2007*).

En virtud del artículo 11.4 a) de la Normativa sobre reconocimiento y transferencia de créditos en enseñanzas de grado, aprobada por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU el 16 de mayo de 2012 y, publicada en el BOPV de 19 de junio de 2012, es posible amortizar **CRÉDITOS** por actividades culturales formativas (cursos, seminarios, congresos, etc.), organizadas por los diferentes Vicerrectorados de la Universidad.

Para estas actividades se establece la equivalencia de 1 crédito por cada 25 horas.

**III.** Las actividades organizadas por los Vicerrectorados tienen reconocimiento para amortizar créditos para **todos los alumnos y alumnas de la Universidad**, con independencia del grado en el que estuvieren matriculados.

Por todo ello,

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

**ERABAKI DUT**

***Lehenengoa.***- Jakinaraztea Bizkaiko Campusak antolatzen dituen jardueretan parte hartzeak balio izango duela kredituak lortzeko (aukera askekoak plan zaharretako ikasleentzat eta hautazkoak graduko ikasleentzat), ERANSKINEAN jasotakoari jarraituz.

***Bigarrena.***- Antolatzaileek, egingo diren ekintzetan parte hartzen duten ikasleen jarraipena ezarriko dute eta ikasleei ziurtagiri bana emango diete, honakoak argi adieraziz: egindako jarduerak, **jardueren ordu kopurua**, nork antolatu dituen, noiz eta non izan diren, **eta erabaki honen data eta organo egilea.**

***Hirugarrena.***- Ziurtagiri hau harturik, UPV/EHUko ikasleek beren ikastegiko idazkaritzara joan beharko dute honetarako xedaturiko epeen barruan. Egin beharreko tramiteak egin ostean eta ordaindu beharreko prezio publikoa ordaindu ostean, bere espedienteari atxikiko zaizkio.

**RESUELVO:**

***Primero.***- Dar a conocer que las actividades organizadas por el Vicerrectorado de Campus de Bizkaia serán válidas para la obtención de créditos tal y como se indican en el ANEXO.

***Segundo.***- Las personas organizadoras establecerán el seguimiento del alumnado participante en las actividades que se desarrollen y entregarán al alumnado un certificado con la indicación expresa de: las actividades realizadas, **horas correspondientes a las mismas**, quién las ha organizado, fechas de las mismas, lugar de celebración, **y fecha y órgano de emisión de la presente resolución.**

***Tercero.***- Con este certificado los alumnos y alumnas de UPV/EHU se presentarán, en los plazos señalados al efecto, en la Secretaría del Centro en el que estén matriculados para que, tras la realización de los trámites pertinentes y el abono de los precios públicos correspondientes, sean incorporados a sus expedientes.

BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA · VICERRECTORADO DE CAMPUS DE BIZKAIA · UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**Francisco Juaristi Larrinaga**
**UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordea**
**Vicerrector de Campus de Bizkaia de la UPV/EHU**

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu

**ERANSKINA - 2018/2019 IKASTURTEA**

**BIOHACK 2019 topagunea**

BIOHACK 2019 izeneko ekitaldiaren barne, industria eta gizartearentzako garrantzi handia duten proiektuak garatuko dituzte bioingeniaritzako ikasleek.
Aurtengo edizioan, honako arlo hauei ekingo diete partehartzaileek: Elikagaiak eta agrobioteknologia; Ingurunea; eta Osasuna. Proiektuen egoerari dagokionez, segidan aipatzen diren faseak garatuko dira jardunaldian:

1. DISCOVERY: IKERKETA ETA HOBETZE-PROPOSAMENAREN GARAPENA
2. DEVELOPMENT: NEGOZIO-EREDUA, PRODUKTU ETA ZERBITZUEN PROTOTIPOAK

UPV/EHUko ikasleek bestalde, Mexikoko TEC Monterrey bazkideak proposaturiko erronkei bideokonferentziaren bidez emango diete erantzuna.

**Kreditu kopurua: bat.**

**ANEXO - CURSO 2018/2019**

**Encuentro Biohack 2019**

BIOHACK 2019 es un espacio donde los alumnos del área de bioingeniería desarrollan proyectos que atienden temáticas relevantes para la industria y la sociedad.
Las áreas temáticas de interés para la presente convocatoria son Alimentos y agrobiotecnología, Ambiental y Salud, las cuales deberán ser integradas bajo una de las siguientes categorías de avance del proyecto:

3. DISCOVERY: INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO DE PROPUESTA DE MEJORA
4. DEVELOPMENT: MODELO DE NEGOCIOS Y PROTOTIPOS DE PRODUCTOS Y SERVICIOS

Esta iniciativa del TEC Monterrey (México) contará con la colaboración del alumnado UPV/EHU, que se conectará por videoconferencia para la resolución de los retos planteados para el evento.

**Créditos obtenidos: un crédito**

*************************************************